



# Antxiñako fotografia



## Uribarriko eskolako ikasliak

**G**erra osteko bigarren hamarkada aldera, **teatrua** egiten euen Uribarri auzoko eskolako umiak, **Satur Murga** maistriaren eta **Juan Mujika** abadiaren zuzendaritzapeian. Gabon aurtxuan izaten ziran ikuskizunok eta erdera batuan, jakiña, artian frankismua bere onenian eguen-eta. Argazkixan agiri diran neskatilla-mutikuak 1952/1953 inguruan jardun euen lanbide horretan. Barrenetik hasitta eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue artista gaztiok:

Behoko ilaran, kamarera moduan jantzitta: **Maribi Galdos**, Otadui Haundikua; **Maixel Kortabarria**, Gogordokua; **Lurdes Inza**, Azkarraga Erdikua; **Mari Trini Txintxurreta**, Datustegikua; **Karmen Galdos** Aingerukua; **Juanita Letamendi**, Soldadukua; eta **Arantxa Agirrebaltzategi**, Barrenekua.

Bigarren ilaran: **Juanita Kortabarria**, Gogordokua; honen atzian **Anita Agirrebaltzategi**, Baltzategikua; aurrian **Milagros Igartua**, Sagastizabalgua; honen atzian **Juli Elkorobarrutia**, Azkarragako Errotakua; honen aurrian eskumatara **Begoña Letamendi**, Soldadukua; atzeratuago **Ana Mari Galdos**, Aingerukua; **Arantxa Urzelai**, Urzelaikua; **Felix Igartua**, Sagastizabalgua; **Juanito Biain**, Maistro Zaharrenekua; **Jabier Inza**, Azkarraga Erdikua; **Jabier Txintxurreta**, Datustegikua; **Migel Mari Inza**, Azkarraga Erdikua; eta **Jexux Biain**, Maistro Zaharrenekua.

Hirugarren ilaran: **Mari Karmen Agirrebaltzategi**, Barrenekua; **Eloisa Letamendi**, Zelaakua; **Maribi Agirrebaltzategi**, Barrenekua; X. X., burua bakarrik ikusten xakona; **Antonio Agirrebaltzategi**, Baltzategikua; **Julio Bikuña**, Tabernakua; **Kruz Mari Galdos**, Aingerukua; **Roke Biain**, Maistro Zaharrenekua; eta **Mari Karmen Idigoras**, Soralezukua.

Laugarren ilaran: **Andres Kortabarria**, Gogordokua; **Nazario Galdos**, Otadui Haundikua; **Emilio Urzelai**, Urzelaikua; **Andres Beitia**, Otadui Txikikua; **Bixente Inza**, Azkarraga Erdikua; aingeru jantzitta **Mari Paz Letamendi**, Zelaakua; eta **Josefina Elkorobarrutia**, Azkarragako Errotakua.

Bosgarren ilaran: **Antonio Bikuña**, Tabernakua; erdi tapauta **Luis Biain**, Maistro Zaharrenekua; **Mari Pilar Agirrebaltzategi**, Barrenekua; **Mari Nieves Bikuña**, Txopekua; honen aurrian justuan agiri dana **Abelina Bikuña**, Txopekua; **Rosarito Azpiazu**, Egikuan bizi zan legazpiarra; eta **Arantxa Aranburu**, Urtaigaiñekua.

J. E.

Argazkixa Otadui Txikiko Felisa, Karmen eta Kontxita ahizpak eskuratu doskue eta argibiderik gehixenak be eurenak dira. Milla esker hirurairi!

Oharra: Orain hurrengo numeruan agertu geben fotografixa zaharra, Larrañakua, Jose Luis Plazaolak ataratakua zan.